

# berriak

# Triforio

-tik



araba  
álava



## Itzuli dira Katedralera eta harresira egiten diren **bisita gidatuak**

Ekainaren hasieran Fundazioak iragarri zuen bezala, Euskadi deseskalatzearen III. fasean sartu eta kultur barrutiei euren jardueraren parte bat berreskuratzeko baime-na eman eta gero, uztailaren 1etik aurrera berriro jarri dira martxan Katedralera eta

Harresira egiten diren bisita gidatuak. Taldeak 15 pertsonakoak izango dira gehienez, eta bisita libreetarako ezarri diren segurtasun neurrietara egokitu beharko dira: maskara eta eskularruak erabiltzea, pertsonen arteko tartea gordetzea eta bi-

sitaren noranzko bakarra errespetatzea. Bisitak berreskuratzea oso garrantzitsua da Fundazioarentzat, hori baita bisitariek gehien eskatzen duten jarduera, itxialdian jaso ziren kontsultetan eta eskarietan argi ikusi den bezala.

## Aterpetxearen berririkiera

Uztailaren 1etik aurrera, Katedraleko aterpetxeak bidaiariak eta erromesak hartuko ditu berriro, hainbat hilabetez itxita egon ondoren. Egungo araudiak eskatzen duen bezala, segurtasun protokoloa ezarri da aterpetxera doazen pertsona guztientzat, edukiera %50era murriztuko da logeletan eta jantokietan, eta, gainera, erabilerarako ordutegiak ezarri dira, pilaketarik gerta ez dadin.

Halaber, sarreran alfonbratxo desinfektatzaile bat jarri da. Maskara nahitaez erabili behar da eremu komunetan, eta baita logelan ere, bizikidetz-unitateekin partekatzen ez bada.

Sukaldea eta garbetea itxita egongo dira, ezinezkoa delako desinfekzioa bermatzea erabilera bakoitzaren ondoren, eta gauza bera gertatuko da vending-makinekin. Gainera, bezero bakoitzak pakete individualizatu batean jasoko du oheko arropa eta gune komun garbiketa indartu egingo da.



Horrez gain, aterpetxearen webgunean ikusi eta eskuratu ahal izango den 'Kontingentzia Plana' prestatu da. Erreserba bat egiten den bakoitzean, bezeroak posta elektronikoz jasoko ditu bete behar dituen neurri guztiak.



## Bisita libreak, esperientzia positiboa

Santa Maria Katedrala Fundazioak, Arabako museo eta kultur zentro nagusiek bezala, jardue-  
ra publikoaren zati bat berreskuratzearen aldeko apustua egin zuen ekainaren hasieran, bisita  
libre berriekin. Noranzko bakarreko ibilbidearen bitartez, eta katedraleko gune estrategikoetan  
dauden ikus-entzunezko materialen eta gidaliburuen laguntzarekin, "Obretan eta irekita" karte-  
la eskegi ahal izan da berriro, ia hiru hilabetez ezinbestean itxita egon eta gero.

## Xehetasunez

### 9.000 argazki biltzen dituen maketa birtua- la Santa Anako portada berreskuratzeke.

Katedrala osatzen duten elementuen eta zaharberritze-pro-  
zesuan egiten ari diren esku-hartzeen dokumentazioa  
izan da proiektu honen ezaugarri nagusietakoa. Tresnak,  
ekipoak, metodoak eta teknologiak garatuz joan dira,  
baina kultur ondasun bat dokumentatzeak dakarren  
errotari aurre egiteko estrategiari eutsi zaio.

Santa Anako portada zaharberritzeko, argazki ehundura  
duen 3D eredu mailatu bat egitea erabaki da, hau da, be-  
reizmen handiko portadaren maketa birtual bat. Guztira,  
9.000 argazki baino gehiago eta 250 milioi poligono era-  
biltzen dituen modelo bat egin dira. Parte baten emaitza  
esteka honetan egiaztatu daiteke: <https://skfb.ly/6T7tW>

"Aldamioan" egiten den zaharberritze-lanerako, 3D eredutik zehaztasun handiko ortoargaz-  
ki bat ateratzen da, objektuaren hainbat ikuspegirekin, xehetasun bakarra ere ez galtzeko.  
Zehaztasuna hemen dagoen irudian ikus daiteke. Egun hauetan lanean hasi gara lehen au-  
rrerapenekin eta, ikus daitekeenez, itxaropen handiak ditugu. Emaizta ikusgarria izango dela  
ematen du.



## Obrak, erritmo onean

Ekainean jarduera handia erregistratu  
da Santa Maria Katedrala Fundazioak  
egindako obretan. Alde batetik, Aiz-  
togile kaleko 103an dagoen eraikina  
birgaitzen ari gara, eta, duela gutxi, al-  
damio perimetrara kendu da, dagoe-  
neko zaharberrituta dauden fatxadak  
agerian utziz.

Bestalde, Santa Maria plazaren ipar-  
kialdean dagoen Santa Anako portada  
zaharberritzeko lanek aurrera jarraitzen  
dute. Ataria babesteko eraikitzen ari  
diren hargintzako gangari behin-behi-  
nean eutsiko dion zinbria jarri da da-  
goeneko, eta ganga hori amaitu ondo-  
ren, portada bera zaharberritzeko lanei  
ekingo zaie.

Azkenik, katedraleko transeptuaren  
teilatuen zaharberritzea lehiaketara  
atera da eta lanak uda amaieran has-  
tea aurreikusten da.

## Katedralak erlojuaren "barruko txirrina" berreskuratuko du

Vitoria-Gasteizko Udalak erloju historikoaren  
"barruko txirrina" Santa Maria Katedrala Fun-  
dazioari lagatzea onartu du. Pieza hori, XX.  
mendearen amaieran kendu zen bere jatorriz-  
ko tokitik, Udal Artxibora eramateko, eta ber-  
tan ikus zitekeen orduetik.

Txirrina, arkupearen gaineko gelan instalatu  
berri den erlojuaren makineriaren ondoan ins-  
taltatuko da. Organoaren atzean zegoen, eta  
berezitasun bat zuen, zegokion hegal osoaren  
zenbakiarekin laguntzen ziola ordu erdiari ze-  
gokion tokeari. Bere funtzioa, kanpaiek jotzen  
zituzten orduen, laurdenen eta erdien tokeak  
tenplu barruan errepikatzea zen.

